



DISNEY LORCANA TCG TXAPELKETA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore Mangamore 2025eko Disney Lorcana TCG Txapelketa, Mano del Friki dendak eta LorcanaEuskadi jokalaria komunitateak antolatua, aurrez aurre ospatuko da urriaren 12an (igandea) 15:30etik aurrera, Zelaieta Zentroko liburutegian (2. solairua).
- 1.2. Parte hartzeko gutxieneko adina 14 urtekoa da. Adingabeek uneoro egon beharko dute aitaren, amaren edo legezko tutorearen laguntzaz.
- 1.3. Gehienez 24 partaide egongo dira.
- 1.4. Parte-hartzaile guztiek uneoro bete beharko dituzte antolatzaileen jarraibideak eta arauak.

2. TXAPELKETARI BURUZ

- 2.1. Lehiaketa Disney Lorcanaren arau ofizialek zuzenduko dute.

Arau horien bertsio oso sinplifikatua

https://files.disneylorcana.com/Shimmering%20Skies_Quick_Start_Rules_ES.pdf helbidean kontsulta daiteke, eta bertsio luzeago bat <https://files.disneylorcana.com/Disney-Lorcana-Comprehensive-Rules-082225-EN.pdf> helbidean.

- 2.2. Txapelketaren formatua suitzarra izango da, 4 BO3 errondatan. Horrela, 24 jokalaria izanez gero, 50 minutuko 4 txanda eta Top 4 final bat jokatuko dira. Hala ere, txandak jokalaria kopuruaren arabera egokituko dira.

3. IZEN-EMATEARI BURUZ

- 3.1. Izen-ematea aurrez aurre egingo da, txapelketaren hasieran, Zelaieta Zentroko liburutegian (2. solairuan).
- 3.2. Erregistratzeko eta txapelketan parte hartzeko, kontu bat izan behar da Ravensburger Play Hub-en: <https://tcg.ravensburgerplay.com/>

Adingabeek beren aitak, amak edo legezko tutoreak sortutako kontua erabili ahal izango dute.

Mangamoreren antolatzaileek ezin dituzte eskuratu aplikazio honek gordetako datuak, txapelketa antolatzeko bakarrik erabiliko baita

4. SARIEI BURUZ

4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: dominak + diploma + opariak
2. saria: dominak + diploma + opariak
3. saria: dominak + opariak

Opariei dagokienez, merchandising-a, elikagaiak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sormen-lanak eta abar izan daitezke.

Halaber, Reign of Jafar hedapeneko Disney Lorcanaren kartazalak banatuko dira Mano del Friki (<https://manodelfriki.com/>) dendaren kortesiaz, honela:

- Kartazal bat parte-hartzaile bakoitzari.
- kartazal bat gehiago irabazleen goiko erdientzat

Hala ere, plazak ez badira betetzen, parte-hartzaileen kopuru osoaren arabera banatuko dira kartazalak.

4.2. Sariak txapelketa amaitzean banatuko dira.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

- 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, txapelketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- 5.2. Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.
- 5.3. Txapelketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak txapelketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago 1. eranskinean dago**
- 5.4. Publizitaterako, txapelketako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik egongo sustapen-neurri horientatik.
- 5.5. Txapelketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake

HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzak, iradokizunak eta abar izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu hola@manodefriki.com helbidera



1. ERANSKINA

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Tratamenduaren arduraduna	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO IFK/CIF: P4800300H Herriko Plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Telefonoa: 946 300 650
DBO Harremanetarako	dbo-dpd@amorebieta.eus
Helburua	Udal liburutegiaren kudeaketa Haur eta gazte zerbitzuaren kudeaketa Zine eta ikuskizunen zerbitzuaren kudeaketa Musika Eskola zerbitzuaren kudeaketa Kultura eta kirol programen zerbitzuaren kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa	DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatzekoa den lege-betebeharra betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.e) Interes publikoko jardueran edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoetan jardutean burututako egitekoa betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.a) Interesdunaren baiezkua (argazkiak sare sozialetan edo udalaren webgunean argitaratzeko). Kasu bakoitzean eskatzen den informazioa ahalik eta txikiena eta Udalak kudeaketa edo izapidea gauzatzeko behar-beharrezkoa duena baino ez da izango.
Pertsona/Entitate hartzaileak /Nazioarteko transferentziak	Bai aurreikusten dira norberaren datuen transferentziak. Bai aurreikusten dira datuen nazioarteko transferentziak AEBra, argazkiak sare sozialetan argitaratuz gero.
Eskubideen erabilera	Bidezkoa gertatzen denean, datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, aurka joan, edota eramagarri izateko eskatu ahaliko da, bai eta tratamendua mugatzeko, eta soilik automatizatuak diren erabakien xede ez izateko ere, pribatutasun-politikan ezarrita dagoen prozeduraren bidez gure webgunean informazio gehigarria zuzenduta (ZERBITZuenKATalogo (amorebieta-etxano.eus)).
Informazio gehigarria	Udal honek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen gaineko informazio gehigarria eskuratu ahal duzu beraren webgunean kokatuta dagoen Datuen babesaren atalean: https://amorebieta-etxano.eus/es/politica-de-privacidad/